



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

Laburpen
exekutiboa

Hezkuntza eta kultura

Inspirazioa jardunbide
egokietan



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Laburpen exekutiboa

Kulturaren Euskal Behatokiak lehen aldiz eskaini dio txosten bat hezkuntzaren eta kulturaren arteko harremanari, lankidetzaz-jardueren esparru potentzial gisa. Ibilbide luzeko eztabaidagaia da hezkuntzaren eta kulturaren arteko loturarena, eta benetako aplikazio-proiektuen bidez zehaztu da azken urteetan. Gaur egun, ikusten da hasierako posizionamendu teorikoek bide eman diotela harreman horretatik eratorritako aukerak aztertzen dituzten proiektuak zehazteari.

Nazioarteko eztabaida teorikoa berrikusten duen eta hezkuntza-sisteman paradigma aldatzeak kultur hezkuntzaren presentzia handitzeko dakarren aukera aztertzen duen lehen bloke batean antolatzen da txostena. Bigarren blokeak sakonago aztertzen du kulturaren eta hezkuntzaren arteko harremana, ondoriozko onurak hezkuntza-esparruan eta esparru kultural, ekonomiko eta sozialean ikertuz eta, azkenik, hirugarren blokeak kulturari eta hezkuntzari lotutako egungo joeretan eta jardunbide egokietan sakontzen du.

2006. urtera arte atzera egin behar dugu nazioarteko adostasun nagusien errepaso bat egiteko, Lisboan *Hezkuntza Artistikoari buruzko Lehenengo Mundu Konferentzia* egin zen garaira, hezkuntza artistikoa sustatzeko premia oinarritu eta justifikatu zuen bilerara. *Hezkuntza Artistikoari buruzko Bigarren Konferentzia* Seulen izan zen 2010ean eta aurreko konferentziaren funtsarekin jarraitu zuen, helburuak, estrategiak eta ekintza espezifikoak gauzatuz eta guztiak ere zehaztuz. Hezkuntza Kultural eta Artistikoari buruzko Hirugarren Mundu Konferentzia aurtengo 2024an izan da, ekintzak are eta zehaztasun handiagoarekin mugatuz ikasleei gaur egun beharrezkoak diren eta etorkizunean era halaxe izango diren konpetentzia kultural eta artistikoak emanez.

Hiru konferentzia espezifiko hauez gain, *Politika Kulturei eta Garapen Jasangarriari buruzko UNESCOren MONDIACULT (2022) Mundu Konferentzia* ere erreibindikatu ziren hezkuntzaren eta kulturaren artean sinergiak ezartzearen onura estrategikoak. Zehazki, kultura hezkuntza formalean, informalean eta ez-formalean integratzearen alde egin zen, baita zentro kultural eta kreatiboen funtzio hezitzailea sendotzearen alde ere.

Ikusi daitekeenez, UNESCOk sakon ikertu du hezkuntzaren eta kulturaren arteko harremana, eta azkenaldian eman duen aurrerapausoetako bat 2024ko otsailean *Hezkuntza Kultural eta Artistikorako Esparru Globala* onartzea izan zen. UNESCOz gain, nazioz gaindiko beste erakunde batzuek ere beren jarrera finkatu dute. 2013an jada ELGEk *Art for Art's Sake?: The Impact of Arts Education* txostena argitaratu zuen, arteek hezkuntza-konpetentzien garapenean duten inpaktua aztertuz. Horrekin oso lotuta, 2017an Europako Parlamentuak *Artea, kultura eta kontzientzia kulturala hezkuntzan* txostena landu zuen, non kulturak eta arteek hezkuntzan duten potentziala aztertzen baitzen, eta European aplikatu beharreko gomendio batzuekin amaitzen baitzen.

Hezkuntzaren eta kulturaren arteko harremana aztertzeko nazioarteko ahaleginez gain, ikaskuntza-eredu konpetentzial baterako bilakaera izan duen hezkuntza-sistemaren paradigma-aldaketa hezkuntza artistikoa eskola-testuinguruan sakontzeko eta zabaltzeko aukera bat da. Paradigma berri horretan, funtseko elementuak –hala nola konpetentzien zentraltasuna, ikaskuntza-inguruneen ugaritasuna, ikaslearen protagonismoa, eskola betiere hezkuntza-komunitate osoarekin eragin-trukean ulertzea, eta abar– indartu egiten diren elementuak dira kultura, bere adiera zabalenean, hezkuntza-ingurunearen zati izatera igarotzen denean. Ildo horretan, berrikuntza pedagogikoa iturri argia da kultura eta elementu estrategiko bat hezkuntza-helburu indibidual eta kolektiboetara erantzutea ahalbidetzen duten eraldaketa pertsonal eta sozialak lortzen laguntzeko.

Nazioarteko erakundeak bultzatzen hasi ziren eta bultzatzen jarraitzen duten eztabaidako eta gogoetako elementu horiez haratago, kulturaren eta hezkuntzaren esparruek elkarrekiko lotura dute egiaz, batez ere bi sektoreen arteko elkarguneetan.

Hezkuntzatik, kulturarekiko harremana hezkuntza formaleko zein hezkuntza ez-formaleko edo informaleko inguruneetan gertatzen da. Hezkuntza kulturalaren eskaintza zabaltzea hezkuntza arautuko inguruneetan, kultura hezkuntza-eremuak espezifikotara bideratutako erreminta pedagogiko gisa ezartzea, hezkuntza artistiko ez-formalaren kalitatea eta sarbidea hobetzea, hezkuntza artistikoa arautzea, sormenezko lanari lotutako metodologiak berritzea, irakasleei prestakuntza kulturala ematea, eta abar, dira kultura eta hezkuntza gaur egun hezkuntza-esparruaren ikuspegitik lotzen dituzten ekintza batzuen adibide.

Kulturatik, proiektu kulturek hartzen duten dimentsio hezitzailetik abiatuta gertatzen de hezkuntzarekiko zuzeneko harremana. Hezkuntzako departamentuak eta bitartekaritza-proiektuak bultzatzea erakunde-kulturaletan, sektoreko profesionalei prestakuntza pedagogikoa ematea, kulturaren profesionalak hezkuntza-inguruneetara lotzea, eskoletara bideratutako proposamenetan lan egitea, hezkuntza kultural eta artistikoko inguruneetan eskuratutako konpetentziak formalizatzen eta akreditatzen laguntzea, publiko berriak eratzea, eta abar, dira kultura-esparruan harreman horren ondorioz garatzen diren ekintza batzuen adibide.

Hezkuntzaren zein kulturaren ikuspegitik, kontuan izan beharreko onura batzuk dakartza bi esparruen arteko harremanak.

Hezkuntza-arloko onurak

Hezkuntza-arloko onurei dagokienez, hezkuntza-kultura harremanak lagundu egiten die ikasleei hezkuntzaren etapa guztietan agertzen diren funtsezko konpetentziak lortzen, konpetentzia horiek oso lotuta daudelarik arazoak modu kreatiboan bideratzeari, arrazoitzeko gaitasunari, pentsamendu kritikoari, eta abar. Errendimendu akademikoari lotutako onurez haratago, mundua ulertzeko eta harekin eragin-trukea izateko eskuragarri ditugun erreminten horizontea zabaltzen du harreman honek, eredu eta ikuspegi alternatiboak eskainiz, hezkuntza berriak ezagutzea ahalbidetuz, garapen kognitiboa sustatuz, gizarte-harremanak hobetuz, eta abar. Kultura hezkuntzaren barruan lotzeak ere baditu ikasleen ongizate emozionalari lotutako onurak, hala nola autoestimua hobetzea, taldearekiko tolerantzia eta kohesioa.

Onura kulturalak

Kultura-arloko onurei dagokienez, hezkuntza funtsezko esparrua da herritarren eskubide kulturalak bermatzeko, kulturen aukera-berdintasunean sartu ahal izateko abaguneak eskaintzen dituen gune ezin egokiagoa baita, hesi fisiko zein psikologikoak gaindituta. Gainera, hezkuntza kulturalak zuzenean eragiten du publiko berrien eraketan, kultura-sektorerako oinarritzakoak diren konpetentziak eta gaikuntzak eskuratzea eta garatzea errazten du, eta dibertsitate kulturala eta ondare kultural material eta immateriala errespetatzeko, babesteko eta balioesteko jarrerak hobetzen laguntzen duela frogatu du.

Onura ekonomikoak

Onura ekonomikoei dagokienez, hezkuntzaren eta kulturaren arteko loturak adin goiztiarretatik sustatzen du sormenari lotutako gaitasunen garapena, pentsamendu kritikoa, arazoek konponketa, arrazoiak, eta abar, guztiak ere soft skill edo abilezia bigun oso garrantzitsuak enplegarritasunerako eta egungo garapen ekonomikorako.

Gaitasun berri horietan prestatzea oinarritzkoa da mundua eta munduaren aldaketak ulertzeko zein ekonomian modu aktiboan parte hartzeko, dela KSle lotutako esparruetan, gaur egun garapen-bidean dagoen eragile ekonomikoa direnak, dela sormenezko praktikek tradizionalki urrunago egon diren esparruetan.

Onura sozialak

Onura sozialei dagokienez, gizarte justu, bakezale, inklusibo eta jasangarrietan bizikidetzat lortzeko helburuarekin lan egiten dute hezkuntzatik eta kulturatik. Kohesiorako, mugikortasun sozialerako, desparekotasunen murrizketarako eta dibertsitatearen onarpenerako oinarriak ezartzen ditu hezkuntzak. Kulturak frogatutako onurak ditu kohesioa lortzen laguntzeko, enpatia, konfiantzari eta autoestimuari lotutako abilezia kognitibo, emozional eta sozialen garapena bultzatuz, eta errespetuan, tolerantzian eta bakean oinarritutako balioen transmisioa erraztuz. Herritar aktiboak eta kultura arteko elkarrizketarako alde aurreko aldeko jarrera dutenak izatea bultzatzen du kulturaren eta hezkuntzaren arteko harremanak, gaur egungo aldaketei eta erronkei aurre egiteko funtsezko balio demokratikoetan indartua.

Hezkuntzari eta kulturari buruzko aldaketa handietako bat teorialik praktikara gero eta gehiago igarotzen dela da, eta, hori horrela, bi sektoreak lotzen dituzten proiektuen kopurua handitu egin da azken urteetan.

Jardunbide egokien errepaso zabala egiten du txosten honek, bai hezkuntzaren esparrutik egiten direnenak, bai kultura-esparruan egiten direnenak. Jasotako jardunbide egokiek ikaskuntzak eskaintzen dituzte kultura eta hezkuntza askotariko helburuetarako lotzeko moduari buruz.

Hezkuntza artistikoaren alorrean dago hezkuntza eta kultura lotzen dituzten ekimenen kopuru handiena, bi sektoreak berez eta modu nabarian lotzen baitira esparru horretan. Hezkuntza artistikoaren esparruan hezkuntza formalera bideratutako ekimenak daude eta, horrekin batera, hezkuntza ez-formala ardatz gisa hartzen duten beste batzuk, eta mistoak diren beste batzuk, bi inguruneetan lan egiten dutenak. Txosten honetan nabarmendutako jardunbide egokietako batzuk hezkuntza kulturalan sartzeko aukerak bermatzera eta hobetzera bideratuta daude, hezkuntza kulturala hezkuntza formalaren testuinguruan sartuz eta bere onurak ikasle guztientzat zabalduz. Jasotako beste jardunbide egoki batzuek kultura berrikuntza pedagogikoko erreminta gisa erabiltzen dute hezkuntza-helburuetarako, eta beste batzuek helburu orokorragoak lortu nahi dituzte, eskola-segregazioa murrizteari edo gizarte-kohesioa hobetzeari lotutakoak.

Sektore kulturaletik gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da kultura-proiektuen hezkuntza-alderdia. Jasotako jardunbide egokiek ikastetxeei ekimen kulturalak eskaintzen dizkieten programak hartzen dituzte adibidetzat, oinarritzko lotura ezarri kultura-eskaintza eta publiko hezitzailea lotzeko; kultura-bitartekaritzaren eta hezkuntzaren aldeko apustua egiten duten programak erakundeetatik edo ekipamenduetatik beretatik, eta hezkuntzaren eta kulturaren profesionalen arteko loturak ezartzera bideratutako programa pilotu orokorrak, bi sektoreak lotuko dituzten proiektuetan batera lan egiteko.

Kultura eta hezkuntza lortzearen potentziala erakusten du txosten honek, kultura eta hezkuntza ezin baitira bata bestea gabe ulertu beren kontzeptzio zabaletan. Hezkuntzaren eta kulturaren arteko harremana kontzeptualki begi-bistakoa bada ere, oraindik esploratzeko bidean dagoen eremua da. Eztabaida teorikoa eta nazioarteko ekimen nagusiak aztertu, hezkuntza eta kultura lotzearen ondoriozko onurak zehaztu, eta jardunbide egokien multzo bat aztertu ondoren, txosten honen ondorio nagusiak gogoetarako gaitzat hartzen du hezkuntzaren eta kulturaren arteko lotura beharrezkoa dela herritar guztiei kalitatezko hezkuntza bat bermatzeko eta oinarritzko eskubide kulturalak ziurtatzeko. Ez dago hezkuntza osorik kultura kontuan hartu gabe, ezta kultura eraginkorrik ere alderdi hezitzaile gabe ere, ezen hezkuntza balio kulturaletan oinarrituta baitago, eta kultura hezkuntza-balioetan.



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

Hezkuntza eta kultura

Inspirazioa
jardunbide egokietan

Laburpen exekutiboa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA